

predikuak muruzabal, 1761

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

predikuak muruzabal, 1761

SERMON DEL MANDATO

Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Joan Cap. 13

Ceritzaion Claudiano ari, ecin elcarrequin junta litezqueala Majestadea, ta amoriua, Anditasuna, ta Cariñua; Non bene combeniunt neque in una sede morantur maiestas et amor. Bañan ecusten degu gaurco egunian utzicen duela guezurtaturic Jesuchristo gure Jaunac, Claudianoaren maxima, edo esan comun au; Gaur elcarcen ditu batian Amante Divino orreq Anditasunac, eta finezac; bada ecusten ditubedian bere escubetan Ceruco eta lurreco ondasun guciyac: omnia cedit ei Pater in manus orduban aguercen ditu fineza ta cariñoric andienac, orduban ecusico dezute ecin ponderatu ditequen humildade eta cariñoarequin garvicen dituela bere Discipuluen oñac. Orduban icusico dezute gueicen diozcala lenago izandu duen amorioari, fineza verri batzuec. Ezagaturic Job Santubac, ceñ andiyac diraden Jesuchristoren amorioaren finezac, gaurco gabeen guciya admiracioz beteric, esan cion Jangoicuari: Quid est homo quia magnificas eum? Quare aponis erga eum cor tuum? Cer dira Jauna Guizonac Zuc aimbete honrraceco, magnificaceco eta anditasunez betececo? Cer dira Jauna Munduco Criaturac Zuc abei (hoqui) aimbete amorio manifestaceco (agertzeco)? Cergatic Jauna ipincen (paratzen) dezu abetan (otan) zure viotza? Adverti izazute nere Christabac Santu onen esplicaceco moduba. Gauza Comuna da, aditcera eman nai dubedian Persona batec besteari dion amoriua, eta cariñua,

esatea vere viotzian daucala amacen duen Persona ura. Bañan ezta baliacen Job Santuba, esateco modu Comun onetaz, eztio galdecen Jangoicuari cer motivoren gatic dauzcan vere viotzean guizonac, baicic cergatic ipincen (edo paratzen) duben guizonetan vere viotza? (cergatic) itz eguiten zuben (nere Aditzaleac) Santu onec, gaurco gabeen Jangoicuaren Magestadeac, bere Criaturas eguin biar cien finezetaz, itz eguiten zuben Sacramentu Divino ori instituitu zuenean manifestatu bear zuben amorio andi artaz, bada emen publicacen du amacen gaituela, ez solo sarcen gaitubela(ric) vere viotzean, baicic ala amatzea asqui ezpaliz bez(a)la amacen gaituela, ematen gaituelaric vere viotza, vere gorputza, eta vere anima sacramentu Divino orretan.

Beste misteriotan declarazen zaigu Jaun Divino arc amatu gaituela Guizonac amatu hoi duten bezala, au da, amatu gaituela geundezcalaric bere viotzian; bañan gaurco gabeen publicacen du amacen gaituela (Guizonac amacen hoi duten bezala baicic), beste amorio fiñago batequin, ematen digularic vere gorputza eta viotza. Veste misterioac izandu ciraden (Jangoico) medio batzuec, Guizonac Jangoicuaren gana hallegatzeco. Bañan Sacramentu Divino ori da, Jangoiqua guizonaquin juntaceco. Beste misterioac izandu ciran Jangoico Omnipotentearen maravillas andiac, bañan au da prodijio bat, ceñean eguiten den maravilla gucien memoria: *Memoriam fecit miravilium suorum* Au da prodijio bat obracen dubena Jangoicuaren amoriuac, piedadeac, eta misericordias: *Miserator Dominus escam dedit* Bada piadosuac eta misericordiosuac esan nai badu Miserableai viotza ematen dutena, gaur Jaun Divino orrec eguiten du bere amorio, piedade, eta misericordiaren ostentacioric andiena, ematen dielaric guizon miserableai, bere viotza eta gorputz preciosua. Ecusi zazute emen nere Christabac amaceco modu berri bat aditu eta ecusi eztena munduban. Zelebra bezate Historioac, Viteloren amoriua, ceñac libracea gatic eriotzetic Panomion bere Nagusia, janci cituben onen soñecuac eta atera cen Panomionen etsaien videra, abec pensaturican Panomion cela, quendu cioten viciya; Ponderatu beza famac, Sila cerizan capitan valeroso aren finezas, ceñac defenditu ezquero bere erriya, garaicen citubela bere etsayac erida ascoren costura, ya arquicen cenian agonian (escatu zuen) eramam cezateela Martirien Elizara, edo templora, eta zulaturic aren gorpuceco zañac, atera cezotela bere odol guciya, gueldi cedien Eliza artan depositatuba, eta izan cedien aren fineza andiaren memoria.

Accio andiyac izandu ciran abec dudaric batere bague, bañan eztute cerequin, eta ecin ecari ditezque comparacioan Jesu Xto gure (Jaunaren) Divinoaren obra eta finezaquin. Bada Jaun Divino au ezta contentacen Sila bezala, bere odola isurcearequin gu defendiceco, ez eta ere utzicearequin Eliza Santuban depositatuba bere odol preciosua, bada orretaz guciacz gañera utzicen du bere gorputz santissimua gu alimentaceco. Ezta contentacen Vitelo Bezala gure naturalezaren soñequac janciric, gure gatic eriotza errecivitu arequin baicic, ematen digu bere viotza Sacramentu admiragarri orretan. Or ematen dizquigu ondasun ta vendicio guciac, dicha ta felicidade guciac. Or ematen digu bere Thesororic andiena; ceña dan gracia: Ave M.

Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Joa c.13

Amorioa esaten du Senecac dela chit valientea eta animosua; Amorioa ezta beiñ ere lotsacen, ezta beldurcen: *Amor nec timet nec rubescit*: Senecaren sententia discreto au confirmacen du Jesu Christoren Magestadeac gaurco gabeen, cergatic aren afectoa ez lotsacen da bere discipuluen oñac garbicen, eta ez beldurcen da campañaara ateracean, bada ecusten dubenian hallegacen zaiola mundu onetatic, vere Aita eternoaren gana juateco orduba: *Sciens Jesus quia venit hora eius, ut transeat de hoc mundo ad patrem*: orduban

asicen du aren amorioac vere contienda ta pelea. Bañan norequin aviacen du pelea ta contienda au? Gure ingratitude andiarequin: contra nostram ingratitude: esaten du espositore Devoto batec, au berau da nic ponderatu nai dizutedana Jesusen amorioaren ordu onetan. Nai dut ecusi dezazuten nola peleacen den Jesusen (ydea) amorioa gure ingratitude andiarequin. Asicen naiz:

Amoriyo fin eta constante eta (eguiazco) bat erretrataceco pintatu zuen Discreto batec viotz bat egalaquin eta beguiyaquin. Pintura onequin aditzera ematen zuben baldin amorioa izango bada fiña eta constantia, preciso cela izanditzan veguiyac ecusteco eta egalac egazteco. Cergatic uste dezute nere christabac direla munduco amorioac, eta afectoac aiñ inconstanteac? Motibua da cergatic badituzte ere egalac egasteco, eztute veguiric ecusteco esaten duben vezala Albatoc. Tella alasque tenens lumina nula tenet Norc veatu dezaque nere Christabac, baldin asco personeen viotzetan (viotzac) balitusquete veguiyac ecusteco nor amaten duten, ez liraquela izango aien amorioaren girac aiñ andiyac. Bañan nola muguicen diran amatzera veguiric bague, argatic ascotan amaten dituste persona aiec, gauza aiec ceñac aborrecituco lituzqueten, baldin ezagucen balituzquete. Ezta mota onetaqua Jesu christoren amoriua; onec ditu chit vista oneco veguiyac: stiens Jesus: Onec amaten ditu bere criaturac jaquiñic ongui oquen correspondenciac diradela ingratitudeac. Bañan ezaguera onec ezta guchicen Jaun Divino orren afectoa, eta cariñua; baicic gueicen du gueiago, ta gueiago bere amorioaren suba.

Chit celebratuba izan du zen Poeten artean Elia cerizan Emacube baten vorondatea, cergatic noiz eta bere Amanteac (Galaiac) eguiten ciozcan desaireac, desvioac, eta desdenac orduban eguiten ziozcan onec fiñezaric andienac. Desprecioac ciraden motibuac gueiceco aren cariñuac. Au bera guertacen da Jesu christoc bere chriaturai dien amorioan; icusten ditu aben ingratitudeac, bañan abec dirade motibuac gueiceco aren amorioaren suba, cergatic esaten duen bezala Villarroelec peleacen ciran Jesuchristoren viotzean, aren amoriua eta Guizonen ingratitudea, eta ateraco bazen amoriua victoriarequin preciso cen gueicen cenian ingratitudea gueicea gueiago ta gueiago, fineza ta cariñua. Ezaguceco pelea ta contienda andi au; ecusteco Jesusen Amorioaren victoria ta tri(u)nfo abec, pasa zaitezte nere christabac Cenaculo artara, non arquicen den Jesus Divinua vere amavi Discipulo aquin; an ecusico dezute amorioric andiena pelezten, obstinacioric gogorenarequin; an adbertituco dezute amorioac errendituric (garvituric) botacen duela (dituela) Jesusec bere escubac guizonic ingratoenaren oñetara. Cerubac admira zaitezte! gorde zaitezte odeien artean, ez ecusteco cer pasacen den Cenaculo artan. Aingueru Santubac apartazazute zuben aurpeguia, escusatu nai badezute, artuco dezuten pena ta sentimentuba ecustez amorioaren eta humildadearen exceso andi bat correspondicen etzaiona zuben Jangoicuaren anditasunari. O Ceruco Erreguiña sobera arquicen cerana Misterio soberano abetan, erretira zaite pisca bat ecusi nai ezpadezu Zure Seme estimatuba Satanasen oñetan, esclabo baliz bezala. Bañan ez, eztezazutela gorde zuben aurpeguia. Aingueru santubac asistizazute zuben erreguiñarequin batean (humiltasunaren miragarri) espectaculo artan; ceñac beteco zaitusten admiracioz. Veguiria zazute, ceru gucia erorcen dela, ingrato (esquer bague) baten eta traidore baten oñetara. Adberti izazute Aita Eternoaren Seme bacarrá, arquicen dela belaunicaturic Judas infamearen oñetan.

O Guizon cruela! nola ezta beracen zure viotz ori Jesusen demostracio cariñoso orrec? Nola etzaitu errendicen (garaitzen) humildade andi orrec? Posible da determinatu cezula salcea etsai cruel batzubei zure Maisu amoroso ori? Siñistu deiteque etzaituela (ya) combertituco oraiñ ematen dizun exemplo andiyac? (Ni oroitzen) Pintatu zuen Discreto batec Diamante bat, eta aren gañian Matrillu bat, golpe andiyac ematen ari cela. Bañan

diamante arc zeucan letra bat esaten zuena: semper idem; beti naiz ni lenagocua; cergatic Orijenesec esaten duen bezala, Diamantean golpeac mellaric (impresioric) eztute eguiten (nigan); Nullo conteritur maleo. Diamante guciyac baño gogorragea cen dudalic batere bague Judas Traidorearen viotza, bada Jesus Divinuac eguin ciozcan fineceen golpeaquin ezta beratzen, eta beti gueldicen da len bezala: Semper idem: Cer fineza eta cariñoaren golpeac eman etziozcan Jesus amorosuac Judasen viotzari? vialdu cion inspiracio (argui) andi bat (bere becatuba ezagutu cezan), bañan izandu zen fruturic bague. Determinatu zuen (Jaun Soberanoac) Jesus Divinuac eguita Judasi azqueneco demostracioa, onequin errendiceco espiritu rebelde ura; salcea Judasen pechuban obeto beraceco viotz gogor ura, bañan izandu cen alferric; bada gueiago obstinatu zen Judas. Iduricen zait esango zuela Aita amoroso orreq viotzeco sentimentu ta pena andiarequin: Ha nere Discipulo estimatuba! cer erresistencia da ori aiñ andiya eguiten diozuna nere amorio fiñari! O Cein guchi ezagucen dezun, combat balio duben zure anima orreq! Orretaz enamaturic arquicen naiz ni, empeñaturic nago eztudala ori galdu bear. Aimbeste estimacen dut nic Zure anima ori, ecic determinaturic nago ematera nere odol guciya, galdu eztadien gatic. Ez Judas, ez nere Discipulo estimatuba, eztut sufrituco galdu zaitezen. Cer esango du nere Aita Eternuac, Ceñac nic adiña estimacen zaituben, utzicen badut eguin bague oraindic falta zaidan diligencia bat, zu irabasteco? Nai dut belaunico jarri zure oñetan abec garbitzeco, eta musu cariñosoac emateco.

Eguin cituben Maisu Divino arc Discipulo ingrato onequin demonstracio abec guciyac. Jo zuben traidore onen viotza aimbeste fineceen golpeaquin, bañan onequin guciarequin guelditu zan bere gogortasunean. Emen nere christabac erorcen zaitzquio San Juan Chrisostomori veguietatic negarrac, indignaturic Judasen contra cergatic beracen etzan aren viotza, ecusiric Jangoicua bera aren oñetan belaunicaturic. Bañan negar eguizu zuc an O Chrisostomo, Judasen obstinacioaz nic emen (negar) eguiten dudan vitartean, aimbeste Christabetaz diranac Judas baño gaistoagoac, maldadeetan. Negar eguizu zuc chrisostomo ecusteaz Jangoicoa bera belaunicaturic bere etsaiaren oñetan; bada negar eguiteco motibo gueiago dut nic, ecusteaz, ceñ frutu guchi ematen duen christaban artean exemplu onec. Aterazazu Viotzetic suspirio tristeac chrisostomo, ecusiric Judasen viotza ain gogortuba Jesus(en) (Divinuac eguiten diotzcan) mesete ta fabore andi(yaquin), bada chit tristeagoac atera biar nituque nic, nere viotzetic, ecustean christabtzat preciacen direnac, eguiten diela ecin gueiagoco resistencia Jangoicuaren graciari. Bustizazu chrisostomo zure silla zure negarraquin Judasen temeridadeaz, bada nic nere negarrequin (nereaquin) bustico dut Pulpito au, negar eguiten dudalaric consueloric batere bague, ecusiric peccataria beren pasio gaistoen medioz, salcen dutela Jesuchristo. Juntatu (elcar) ditzagun chrisostomo, zure negarrac, eta nereac batean, viyac negar eguin dezagun Judasen obstinacioaz, eta christaben gogortasunaz; eta zubez nere christabac vizquitartean admiratu zaitetze Jesusen amorio andi onetaz eta onec obligaturic eguiten dituben finezetaz alaco ingratitudearequin peleatzeco.

Bañan ecusiric nere christabac Jesusen amoriyo andiya Judasen ingratitudearequin peleacen pensatuco dezute zubez, emen acabatu (fiñitu edo) cela Jaun Divino orren contienda eta pelea guciya? sinistuco dezute etzela pasatu ematera oraindic, vere amorioaren señaleara claroagoac (agueroagoac) Zaudeste oraindic piscabat eztezazutela izan prisaric aiñ laster ateraceco Cenaculo artatic; bada oraindic falta zaio (gure salvatzalle Divino orri) ematea bere fineza andiaren azqueneco prueba. Esan zuben Jaun Divino onec ocaseo batian, ecin allega diteque amante baten cariñua andiagoo izatera eman ezquero ya vere adisquidea gatic vere viciya. Maiorem charitatem nemo habet, ut animam suam ponat quis pro amitiis suis: Badaqui Jaun onec, bere ordu onetan ya ematera dijuala vere viciya

gure gatic (ezagucen du) au dela amante batec bere adisquideagatic eguin dezaquen demonstracioric andiena; bañan ezta emen gueldicen (pausatzen) aren cariñoaren suba (anditasuna); cergatic posible ezpada ere viotz amante baten balentiya aurrerago pasacea, gaurco gabeen juntacen (vilcen) zaio valentiari, saviduria edo jaquintasun Divinua, eta arquicen du oraindic aurrerago pasaceco moduba. Celebratubac dirade munduban Cadiz ondoco columna edo Pillare famatu aiec, ceñetan Hercules valienteac (indartsuac) paratu cituben letra Abec: Non plus ultra: aditzera emateco an acabatzen zela lurra; eta andic aurrera pasacea cela valentiaric andienarenzat gauza imposiblea; bañan Herculesen valentiari iduritu batzizaion ere imposiblia gure (Españiaco erregueac) erreguearen jaquintasunac eguin zuen bosiblea, cergatic descubrituric rumbo edo mundu berriyac, paratu citusten. Letra abec: Plus ultra: au da, andic aurrera pasaceco aguertu dela moduba. Au bera da nere christabac pasacen dena Jesus Divinoaren amorioarequin. Onec balientea den partetic, esaten du: plus ultra; oraindic bada aurrera pasaceco moduba oraindic eman dezaquet nic, nere amorio andiaren prueba seguruagoa(c). Eta cer eguiten du onetaraco?

Gueldizaiteste admiraturic Ceruco Serafiñac, aiñ amorio andiaz! Arcen du Jesus Divinuac bere escubetan oguiya eta paracen du Calicean ardoa, consagracen ditu ala bata nola bestia, errepaticen ditu bere discipuluaren artean, eta esaten die: Arzazute eta jan zazute guciyac, bada au da nere gorputza; Arzazute eta edan ezazute guciyac, bada au da nere odola. Ni banua ya nere Aita Eternoaren gana, bañan oraindic secular aditu eztan milagro batequin gueldicen naiz dembora berean, zuben artean; ematen dizutet nere amodio muga baguecoaren pruebaric andiena, usten dizutedanean nere gorputza vere vi naturalezaquin; bata divinua eta bestea humanoa, bere atributo ta perfeccio guciaquin. Jangoicua eta guizon eguiazcoa naicen bezala, gueldicen naiz zubequin azquen juicioco egun eraño. Gucia entregacen naiz Deus ere erreserbatu bague; Omnipotentia izanagatic eztut gueiago cer eman, eta zubez ambiciosuac izanagatic eztezaquezute pretenditu gueiago. Au guciya ala denian eguiazqui ala dan bezala, ya atera zaitezquete nere christabac cenaculotic, bada ezta gueldicen gueiago cer ecusi. Jesuchristoc eguiten ditu esclabo villano baten oficioac belaunicaturic Judas alebosoaren oñetan; peleatu da Maisu Soberano orren amorioa (onen) Judasen eta gure ingratitudearequin. Eta victoria eta triunfua alcanzatu duen señaLEAN guelditu da Sacramentu Divino orretan; eta ongui jaquiña gatic, christau gaistoac eguingo ciozcaten irreverenciac, desprecioac, ofensac eta sacrilegioac; nai izandu du gure artean guelditu, beteceagatic gure animac, ecin esplica ditezquen felicidadeta eta dichaquin. Ya au ecusi duenac eztu cer ichodon gueiago ecustea. Bañan zaudeste pisca bat oraindic falta zaitzute ecustea, Cer atseguñ andiarequin ateracen den Jesus Divinua Cenaculo artatic, villacera tormentubac eta eriotza, bere amorioa confirmaceco. Ecin gueiagoco alegriarequin encaminacen du Olibeteco mendira bere Etsaieri (quen) esperacera. exierunt in montem oliveti: eta nic ecusten dudanian Cenaculotic ateracen dela, ecin utzi nezaque esan gabe: A Dios nere Jesus ona! A Dios nere viotzeco amorio dulcea! A Dios nere esperanza gucien seguridadea. Zuaz, zuaz Jauna ordu onean, Gurutze batean viciya ematera Pecatari miserableen gatic! Lograzazu deseacen dezun consuelua! Bañan Jauna, eztadiela gutatic iñor gloriatu zu crucificatubaz. Cer esan esango luque Cerubac, ecusten baluque christabetan pasatu cena Judubaquin? paratuco luque bereala lutu bat bere illuntasun arequin ez precisoqui, cergatic christo illcen den, nola cergatic christabac beren culpaquin berriz crucificacen duten. Cer esango luquete Aiñguerubac? Negar eguingo luquete consueloric bague ecustez christabaren ingratitudea, eta zure amorio andiya. Bañan eztezatela negarric eguin Aiñguerubac. Eguin bezate guizonac eta falta bazaie compasioa, billabezate arrietan, bada abec puscatu ciran penaz eta sentimentoz.

Eta zuc Jesus amorosua, ezteazula permititu zure finezeen ordu onetan guelditu dadien

christaben bat zure graciatic campuan. Baldin zu, zure ordu onetan irabastea gatic Viot(z) errebelde bat jarri baciñan belaunico Judasen oñetan; gu pecatariac lograceco zure misericordiac, jarcen guera humildade andiarequin zure oñetan escatzen dizquizugularic pena ta sentimentu andiarequin gure oraiñdarañoco ingratitudez varcaciua. Hai nere christabac, izango da gure artean botaco eztubenic beregandic altaneria, presuncio, eta sobervia guciya, ecusi ezquero Jesus Divinua Judasen oñetan? ecusi ezquero Aita Eternoaren Semea esclabo baten officioa. eguiten? conserbatuco du Zubetatic norbaitec vere correspondencia, mundubarequin eta bere gustu (atseguñ) ciquiñaquin, ecusiric dijuala Jesus vere viciya ematera pena ta tormentuben artean? Baldin zuben artean arquicen bada, penac eta sentimentubac uquicen eztuenic, eman beza ya bere buruba galdutzat; egun onetan, ordu onetan senticen eztubenac bere entrañetan compasio andi bat Jesus Divinuaz, eta aborrecimentu (pena) andi bat bere pecatubaz, consideratu dezaque vere salvacioa desesperazeco puntuban; Ez nere jaun amorosua, eztezazula permititu ni adicen nauten etatic iñor izan dadien aiñ gogorra zure finezai. Nai ditugu corresponditu zure cariñuari aldezagun moduban empleacen garelaric zure servicio santuban, ala logradezagun zure adisquidetasuna, eta gracia; eta ceruban zure compania dichosua etc.